

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPIZKOAN		NAFARROAN	
46	1.625	39	529
positibo berri	hildako EAEn	positibo berri	hildako
2.993	4	6.504	Eguneratu gabe
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	

\*Hernanin 78 Astigarragan 24

## PCR froga guztiek negatibo eman ondoren Oarso kaleko eraikina isolamendutik irten zen atzo goizean

Egindako 35 testek eman dute negatibo eta orain, isolatuta, berrogeialdia positibo eman zuten bi familiek bete beharko dute. Beste bizilagun guztiak kalera irten daitezke eta atzo ohiko bizitzara bueltatu ziren.

### HERNANI KORONABIRUSA

Hernaniko Udalak 22 etxebizitzako eraikinean ezarritako isolamendua kendu zuen atzo goizean, egindako 35 PCR testetan ez baizuten COVID-19 kasurik atzeman, bizilagunen artean. Blokea isolatu egin zuten bi familiak positibo eman ostean, eta berrogeialdia bete beharko dute horiek. Beste guztiak irteke baimena dute.

Udalak jakinarazi zuenez, «atzo bizilagunei egindako froga guztiak negatibo eman dutenez, eraikina dagoeneko ez dago isolatuta».

Isolamendu egoeran egun oso bat igaro ostean, emaitza negatiboak izan ziren atzo goizeko lehen orduan, eta horri esker etxebizitza-bloke horren konfinamendua altxatu ahal

izan zen bizilagunen lasaitasunarentzako.

### Hernaniko lehen fokua, baina atzo positiborik ez

Esti Aldeiturriaga Hernaniko alkateordeak adierazi zuenez, Udalak astelehenean 20:30ak aldera izan zuen egoeraren berri, Osasun Saila Udalarekin harremanetan jarri zenean, «etxebizitza batean kasu positibo batzuk zeudela eta eraikina konfinatu behar zela baieztatzen». Bloke horretako bi familia ziren, positibo eman zutenak.

Aldeiturriagak zehaztu zuenez, jakinarazpen horren ostean, Udaltzaingoa eta Babes Zibila «Osasun Sailarekin koordinatuta jarri ziren eta eraikina konfinatu zuten», bizilagunei egingo zitzaizkien PCR testen emaitzak jaso arte. Herrian eta



Etxebizitzako balkoi batzuk Elkano kalea begira daude.

bailaran egon den lehendabiziko fokua izan da, baina blokean ez da gehiagora joan eta kontrolpean dagoela dirudi.

Atzo argitaratu zen txostenean Hernanin ez zen positiborik egon. Gipuzkoan 46ra igo

dira. Horietatik 14 Eibarren, berderatzi Donostian, sei Arrasaten eta bost Zarautzen.

Bizkaian 62 positibo atzeman dira, gehienak Bilbo eta inguruko herrietan. Araban 13 positibo berri daude eta horie-

tatik 12 hiriburuan. Beraz, gutxira EAEn 123 batu dira eta Nafarroan kasuak 39ra jaitsi dira, atzo baino hiru gutxiago. Hala ere, ospitalizatuta 37 daude eta bakarria UCIn. EAEn UCIn lau pertsona daude. **K**

## Udaleko Zerbitzu Sozialak-eko klinikako laguntzaileen hogeitaz plaza jabetzan betetzeko deialdia onartu da

Lehiaketa bidez egingo da hautaketa eta funtzioa zaharren egoitzako egoiliarren ongizateaz arduratzea da.

### HERNANI UDALA

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko klinika laguntzaile lanpostuen hogeitaz (20) plaza txanda librean eta azterketa eta merezimendu bidezko lehiaketaren bidez betetzeko deialdia onartu du, halaber, hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak.

Lanpostu horiek Administrazio berezia eskalakoak dira, teknikariak azpieskalakoak, teknikari laguntzaile klasekoak, C2 sailkapen taldekoak eta 2garren hizkuntza eskakizuna dagokie derrigorrezkoa.

Funtzioa da zaharren egoitzako egoiliarren ongizateaz arduratzea, hauen beharrak asetuz eta autonomi pertsonala

bermatuz, solairuko arduradunaren gainbegiratupean.

Oposizio lehiaketarako probak gainditu ondoren deialdiko plaza lortzen ez duten hautagaiak, klinika laguntzaile lanpostu batean sartuko dira.

### Sandiusterrin eskatu eta aurkeztu, eskabideak

Partehartzeko eskabideak Hernaniko Zerbitzu Sozialak Erakundearen bulegoetan, Sandiusterrin kaleko 1 zenbakian, emango da. Era berean, eskabidearen inprimakia eskuraga-

rri izango da [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) webgunean.

Partehartzeko eskabideak aurkezteko, hogeitaz egun naturaleko epea izango da. Deialdiaren laburpenaren iragarkia Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Eskabideak Hernaniko Zerbitzu Sozialen egoitzan, Sandiusterrin, aurkeztu beharko dira besteak beste.

Deialdia eta hura arautzeko oinarriak euskarri ofizialetan eta Udaleko webgunean argita-

ratuko dira.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordeari, hila-bete baino lehen. **K**

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

Asegururik ba al duzu?  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tfnoa.  
**943 33 10 20**

www.funerariaorbegozo.com

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

**Tripontzi jatetxea**

PINTXOAK RAZIOAK ENTZALADAK PLATER KOMBINATUAK ARRAI FRESKOA

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

San Inazio egunean

**MENU BEREZIA**

Zatoz, egun eder eta pasako dugu etan!

COVID-19ren ondorioz, auzten ez da trikitilarik egongo

Marraka-Enea baserria, Santa Barbara auzoa, 92

**943 55 64 81 - 943 55 46 75**

**SARETXO JATETXEA**

**GAUR** Hego-ekialdeko haizea ibiliko da eta termometroa 35-40°C artean ibiliko da hainbat bazteretan. Kantauri isurialdeko hainbat puntutan 40°C-tik gora ere igo daiteke termometroa. **Min.16° / Max.38°**

**BIHAR** Beroa arinduko da. Haizeak mendealdetik/ipar-mendealdetik joko du kantauri isurialdean, kostaldean bereziki, eta temperatura asko jaitsiko da bertan. **Min.20° / Max.28°**

**DOBERA**  
EUSKARA ELKARTEA

**LAGUNTZAILEAK**

Hernaniko Udala

Astigarraga Udala

Erriberri Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizuetako) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizuetako-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizuetako) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizuetako: Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL GOBIERNUA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

## 'Agur Kultur Etxea... Kaixo Erribera' mezua postaletan jaso nahi du Udalak

Erribera kultur etxeko inaugurazioa irailaren 12an egingo da eta, herritarrei postal bat betetzeko eskatuko zaie esaldiei erantzunez.

**ASTIGARRAGA UDALA**

Erribera kultur gunea irailaren 12an inauguratuko da eta orain arteko Kultur Etxeari merezi duen agurra eta Erriberari merezi duen ongietorria emateko, Udalak herritarrei proposamen bat zabaldu nahi die. Postal batean bi gogoeta idatzi, bi marrazki egin edo bi sentsazio islatzea; *Agur Kultur Etxea* esaldiari erantzunez bat eta *Kaixo Erribera* esaldiari bestea. Herritar guztiei dago zabaldua proposamena.

**Erantzunekin erakusketa egingo da Erriberan**

Jasotzen diren postal guztiekin erakusketa bat egingo da, irailaren 12tik aurrera Erriberan ikusgai egongo dena. Gainera, postalak bidaltzen duten herritar guztien artean, irailaren 12ko inaugurazio ekitaldiaren barne, Erribera Kultur gunea bisitatze-ko sarrerak zozketatuko dira.

**Postalak etxeetara bidaliko dira eta eskuragarri daude**

Etxe bakoitzera postal bana bidaliko da. Baina, herritar guz-

tiak beren postala izan dezaten, eskuragarri jarriko dira udaletxean, kiroldegian, kultur etxean eta zenbait saltokitan.

**'Agur Kultur Etxea' eta 'Kaixo Erribera' esaldiei erantzuna**

Postalaren atzealdean *Agur Kultur Etxea* eta *Kaixo Erribera* esaldiei erantzun behar zaie. Oroimenak, sentimenduak, desioak, koloreak, hitzak edota marrazkiak jarri daitezke.

**Non eta noiz utzi daitezke postalak?**

Udaletxean, kiroldegian, kultur etxean edo kaleko postontzietan utzi daitezke. Abuztuaren 9a izango da azken eguna postalak uzteko. **K**

## San Inazioetako finalean ariko da Paul Ojuel

Txapelketako finala gaur jokatu du, 17:30etan, Julen Alberdiren aurka Egiako frontoian.

**HERNANI PELOTA**

Paul Ojuel, C.D.Hernaniko pelotari nagusiak, Donostiako Loiola eta Egiako auzoetako frontoietan jokatzeko ari den San Inazio Txapelketako finala jokatu du gaur, 17:30etan, Julen Alberdiren aurka. Finala Egiako fron-

toian jokatu da.

Paul Ojuelek 22-5 irabazi zion Iker Urmenetari (Eple) final-zortzirenetan, ondoren finalurdenean 22-21 irabazi zion Xabi Santxori (Pagazpe) eta azkenik 22-14 irabazi berri dio Mikel Eloiari (Tolosa) finalerdietan.

**Alberdiren aurka, gaur**

Gaur, 17:30etan hasita, nor baino nor arituko da, Julen Alberdiren kontra finalean. Pronostikoak berdinduak daude, baina hernaniarraren esperientzia, erabakigarria izan daiteke. **K**

**Eskelak**

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## Termometroak gaur 40 gradura iritsi daitezke eta babestea gomendatzen da

Udarako egunik beroena dago iragarrita eta ura edatea beharrezkoa da ez deshidratatzeko.

**URUMEA EGURALDIA**

Azken urteetako egunik beroena izan daiteke gaur, abisu horia dago iragarrita eta horri aurre egiteko babestea gomendatzen da. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da, termometroa 35-40°C artean ibiliko da eta Kantauri isurialdeko hainbat puntutan

40°C-tik gora ere igo daiteke termometroa. Printzipoz 38-40 gradu daude iragarrita Urumea bailaran.

Egoera honen aurrean ondorengo gomendioak kontutan hartzea beharrezkoa da. Likido asko edan, bereziki ura, deshidrataziorik gerta ez dadin. Ez itxaron egarri izan arte edaten hasteko. Saiatu ez hartzen alkohola, kafeina edo azukre gehiegi daukaten edaririk.

Arin jan (entsaladak, gazpatxoak, barazkiak, fruta eta abar). Itxi leihoak, eta jaitsi eguzkiak jotako leihoetako pertsianak; bero gutxieneko orduak baliatu

etxea haizatu eta freskatzeko.

Erabili arropa egokia: zabala, arina eta kolore argikoa eta izerditzeko uzten duena, baita oinetako erosoak eta freskoak ere.

Ahal bada, ez irten kalera bero gehien dagoen orduetan. Atera behar baduzu, estali burua eta saiatu gerizpean ibiltzen. Ariketa fisikoak kanpoan egin behar badituzu, egizu bero gutxienean egiten duen orduetan. Ibilgailua aparkatuta eta itxita dagoela, ez geratu inoiz barruan, ezta itzaletan ere.

Arreta haundia eduki behar da jaioberriek eta ume txiki-kin. **K**



Bidebieta plazako monolitoaren aurrean bildu ziren Fernando Ros 'Nabarro' omentzeko.

## Fernando Ros gogoratu zuten lagunek Bidebieta plazan

**HERNANI OMENALDIA**

Asteartean, Fernando Ros gogoratu zuten lagunek Antziorako Bidebieta plazan dagoen monolitoan. 34 urte bete dira

hil zela eta urtero Abartzuzan egiten zen omenaldia Hernanin bertan egin da aurtengo egoera ikusita. Lore eskaintza egin zioten eta Antton Garinek bi bertso

eskaini zizkion. Ondoren, Eusko Gudariak abestu zen, Nafarroako eta Euskal Herriko ikurriñak apainduta familia argazkiarekin amaituz.

† **JUANI ERDOZIA IRIBARREN**  
Herenegun hil zen Urnietan, 77 urte zituela.  
- Goian bego -  
Senarra: Sebastian Iradi; seme-alabak: Josetxo eta Marga, Kristina eta Jon, Tomas eta Ainhoa, Andoni eta Lierni; bilobak: Iñaki eta Lucia, Uxue, Enara eta Ander, Xabi eta Amaia, Eneko eta Goiatz, Asier, Ander; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
Hernani - Urnietan, 2020ko uztailaren 30ean.

**JUANI ERDOZIA IRIBARREN**  
- Goian bego -  
Gure esker ona zuri emazte, ama eta amona hutsaren truke eman diguzun guztiagatik,  
Uste gabeko batek eraman zaitu gaur hain maiteak zenituenen ondotik,  
Orain bihotzak goibel dauzkagu nahigabea borborka barrutik,  
Hutsune hau betetzen saiatuko gera denok lagunduz, baturik,  
Zuk nahiko zenuen bezela elkar maitatuz, bihotzetik.  
Hernani - Urnietan, 2020ko uztailaren 30ean

**JUANI ERDOZIA IRIBARREN**  
- Goian bego -  
Maitasunez  
**ZURE KOADRILA AURRERA**  
Hernanin, 2020ko uztailaren 30ean

**IRAGARKI MERKEAK**

**Etxebizitza bat alokatzen da Latxunbe Auzoan.** 3 logela. 750 euro hilean. **Deitu 650 14 99 60 Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**